

GURE BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburu nagusia da ikasleak zoriontsu egotea, kezkarik gabe. Hori lortzeko, ahalik eta gehien egiten saiatzen gara, haien osasun mentala hobetzeko.

Gure enpresaren eta beste batzuen arteko aldeak dira:

- Guk, ikasleen osasun mentala eta emozionala hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, sentimenduak eta kezkak adierazteko ingurune segurua eta lagungarria eskainiz.
- Psikologoak zuzenean eskoletara eramaten ditugu, sarbide oztopoak ezabatuz eta ikasle guztiek behar duten laguntza jaso dezaten. Erosoago sentituko dira ikasleak, lekuz aldatu behar ez direlako.
- Osasun mentaleko arazoak lehen faseetan detektatzen eta lantzen ditugu, arazo larriago bihurtzea saihestuz eta ikasleen errendimendu akademikoa eta soziala hobetuz.
- Ikasle, guraso eta eskola-langileentzako **tailerrak** eta **hezkuntza-programak** eskaintzen ditugu, osasun mentalarekiko ulermen eta laguntza kultura sustatuz.
- Gure elkarriketa guztietan pribatutasuna eta errespetua bermatzen ditugu, ikasleek lasai hitz egiteko konfiantzazko espazioa sortuz.
- Eskola-langile, guraso eta komunitatearekin estu lan egiten dugu, ikasleen ongizaterako ikuspegi kohesionatua sortuz.
- Psikologiako azken ikerketak eta teknikak erabiltzen ditugu, ikasleen behar aldakorretara egokitutako zerbitzu eraginkorrak eskaintzeko.